


Euskalerrriaren

erromes bide



Gizaldi ta samin danen ondotik

Arantzazu-ko arran ots

misteriozkoa, oraindik deika ari

zaio Euskalerrriari, beti gorantza ...

“Bat, bai bat, girela ere, gure zazpi herrien artean...”

Onela kantatzen zuen Etienne Salaberry-k euskal probintzien anaitasuna, **Gernika-ko Arbola** titulatzen den poesia eder batean. Batasun ori aspaldion gozatu ez duen diztira agiri zaigu azkeñaldiko momentuan. “Lurraren, arrazaren, mintzaiaren, ohiduren aldetik Herri bat eta bakar bat” bagera, fedearen aldetik ere, bat irauten baitu, gure erriaren parterik sanoenak eta aundienak.

San Martolome gabean luzaro egondu gera Salaberry, Bizkar eta ni, Arantzazu-ko bide ondoan egiten den koba txiki baten atarian. Izarrak begira ta elkar izketan. Baiña begiratzenago, azkar eta prestuki bide latzean gora zetozen ainbeste gazte. Gazteen amabigarren igoera baitzen gau ortan.

Koba aurrean exerita, antxiñako euskaldun larruz jantziak etorkizuna pentsatuko zuen bezalaxe, gazteon bixtarekin euskal kondairaren martxa ta joera ikusi uste izan ditugu.

Euskalerrriaren istoria, beti aldapan gora doan istoria... Aldapa gorazkoa da gure kondaira osoa: ez bakarrik fedearen alderdikoa, gure izaera osoarena baizik. Gabaren ondoan, bide neketsuan. Alare, esperantza fuerte batez, ta nora doan dakiela.

Bidean jetxi ala sail aundiari aurrea artuta zetozen zenbait grupoeekin topatu gifian. Bide baztarretik, errosarioa errezetzen, propoitoak boz agirian esaten, entzun genizkien. Norbait Ama Birjiñari bertsoetan ari zitzaion... Goian aitortzeko asmoz edo zetozen aurreraturik, apika.

Otzez kizkur, ta mendi-zerra oen barnean entzuten zen ganaduaren zinzarrotsak bigundutakoren baten komentarioa entzun zen: gaua ixilla dela gero! Ta ziñez, ixilla da ta sakorra benetan. Baiña bestelakoxe emozio ikarak zimurtzen dizu sorbalda goitik behera, itzala besterik ikusten ez diran amar gazte, konzientzi barneraifio murgilduta, aldemenetik pasatzen zaizkizunean, arras ixil. Kamiñoan oin utsak egindako ots xehea, orixe da gizonaren ixiltasunik aundiena. Ta gaua ixilla bada, ixillagoa da gazte erromesak berekin daraman ixiltasun arrigarria.

Salaberry: oriek dituzü Euskalerrriak bide urratzeko aurreratu dituen pionero azkarak.

—Arraza indartsu bat da. “Ez zitela lotsa, euskaldun jendea”.

Urtiagain parean odeiak argitzen ditu gaztediaren esku argiak. Ba-datoz aurki. Gipuzko, Bizkai, Nafarro, Araba... gora datoz elkarturik. Baita Bidazoaz andiko alde-tik etorriak ere. Arantzazu-rako Igoera euskal kondaiaren irudi ta sintesis bat biur-tu da.

Gaur arte euskaldunok bakoitza bere aldetik ibilli gera. Gure istoria besteekin ba-tera jositakoa da, gure erriaren alde bate-koekin naiz bestekoekin. Gaur alare, guk geuk egin nai dugu —aldekoak baztartu gabe, noski— gu geu izan protagonista. Au da, **agonian**, burrukan lehenengoak izateko urduri gaude.

Denpora bat ezagutu zuen Arantzazu-ko gaillur zakarrak Laburdi-tik Errioxa-raiño ta Xubero-tik Bizkai ertzeraifño-ko fededunak biltzen zituena bere magalean. Geroago, Frantziak berari lotu zituen probintzieta-tik etorri ezin zitezkeala geratu zirenean Ainhö-ko Kaperä altxatu bearrez ikusi ziren andikaldeko anaiak.

Gaur ordea, berriz asi gera elkarrengana-zen. Ta euskal gaztediak berriz ekin dio Arantzazu-ko aldapari, gure kondairaren etapa itxaropengarri onen asiera asieratixe. Igoera au, mutillen naiz neskakten edizioan, gure sinismena urte luzeetan zear egin egi-ten doan epopeiaren ardatz mistiko gogorra dugu.

Kristautasunak batasuna signifikatzen du. Kristauak batasuna funditzen duen sua piz-tu nai du bakoitzak norbere barnean, ta la-gun urkoarenean. Su au, batasunaren sei-fialeak markatuta egiten den Igoera onek ematen die.

Gau onek gazteeri karidadean ta grazia bizitza indartzea egiten diena ez da esatekoa. Millaka mutil aiek Basilika-tik irten zire-nean Juan Laskibar nire adiskidearekin a-pur bat itzegin nuen eta zera esaten zidan. (Néke neke eginda zegoen).

—Igoera neketsua dek, baiña merezi due-

na alare. Batek pentsatzen dik oek denak konfesatu berriak direla, denok grazian ga-tozela... Amabi milla gazteen batasuna neure anaiaren bezain urbillekoa ta norma-la sentitzen nian. Pozik negok, oso pozik.

Gazteen aurretik apaiz bat zetorren, oin utsik. Gaztea iruditu zitzaidan illuntasu-nea. Edifikatuta utzi dit anima aren itxu-ra apalak, aren arnasa nekatuak. Millaka gazte izango ziren gau artan oin utsik igo zirenak, baiña denen aurretik apaiz au zeto-rran, Kristo Jesus au.

Eskerrak, Jauna, batasunera biderako al-dapa zaillean, aurretik apaizak jarri dizki-guzulako.

José Azurmendi.

XII Marcha Nocturna a Aránzazu

(INFORMACION GRAFICA)

Pág. 304.—Pies descalzos de jóvenes que realizaron la Marcha Nocturna. Todavía no han sentido la aspereza de la carretera, pero llegarían así, sin consue-los, hasta la Basílica. Serían centenares, quizás más del millar.

Pág. 305.—Comienza la Marcha Nocturna. La dirigen, a la izquierda, D. José M^a Aguirrebalzátegui (cuya entrevista publicamos en las págs. 310-312); y a la derecha, el Consiliario Diocesano de los Jóvenes de Acción Católica, D. Ramón Gaztelumendi.

Págs. 310-311.—La amplísima Plaza de Oñate, momentos antes de iniciarse la Marcha Nocturna. Los jóvenes escuchan las alocuciones fervorosas de un predica-dor asomado a un balcón. Al fondo, los guñones de las diversas asociaciones. Se va a iniciar un apasionante poema de piedad y de sacrificio voluntario y ge-neroso.